


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urriaren 24a / 647. zenbakia




ARRASATEKO HORMAK MARGOTZEN

ORAIN ETA HEMEN: ORDENANTZA FISKALAK/8 • KIROLA: LAU T'ERDIKO TXAPELKETA/11

ARGAZKIA: XABI URZELAI. AZALA: ALEX AZKARATE

EDERTASUN GIDA/24




San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa-Soruak-Leihoak-Ateak-Horma armairuak



GIDA 04

abian!

Telefono berria jarri baduzu

edo aldatu baduzu,

deitu 943 71 23 91 zenbakira edo bidali

ondorengo helbidera:

publi@goiena.com

Gida Komertziala,

zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

KALEINKESTA/ Produktu freskuek larregi garestitu diela pentsetan jatzu? Zergaittik?



JOSEBA VALLES
Langillie




HODEI SALAZAR
Ikaslie



GORKA TUESTA
Ikaslie



AITZIBER JUARISTI
Langillie



ELOI MATEOS
Jubilae



KONTXI GALLASTEGI
Langillie

Bai, igerten da preziuek asko igo diela. Seguruenik udan euki dogun sikutiek euki dau eragine preziuetan, baiñe batzuk aurpegi-xe galanta daukiela be esango neuke.

Baietz uste dot, azkenaldixen produkto freskuen preziuek igo egin die. Udan euki dogun sikutiek produkto gutxi egotie ekarriko euen, eta gainera, euruekin dana garestitu da.


Bai, preziuek asko igo die. Aspaldixen geruau eta kontaminaziño haundixae dau eta horrek produktuetan eragin haundixe dauko. Adibidez, *Prestige*-n kulpiagaittik arrain gutxi dau.

Berdura gehixenak base-rrittik hartzen dittugu, eta normala da preziuek igotie. Azken baten, uda txarra euki daue... Eta produkto-rra haundixek gure dauena egitten daue!

Bai, duda barik, preziuek asko igo die. Udan egon dan sikutiagaittik izen dala esaten daue, baiñe baserri-tarrrek gutxi kobretan daue eta guk, barriz, gehixau pagetan dogu.

Neure ustez bai. Aspaldixen neuri tokau jat etxeko erosketak egittie eta preziuen igoeriek bilddur-tute geratu naz. Nik uste dot igoerien kulpa haundixena euruek daukola.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KANTOI ILUNEGIA Maala kaleko bizilagun batzuek aditzera eman dute Maala eta Azoka plaza artean dauden bi kantoietako batek ez duela inolako argirik. Bigarren kantoiak, berrienak, badu argitasuna; betikoa, ostera, ilunpean dago, eta herritar batzuek horren gaineko kexa agertu dute. Horrekin batera, Arrasateko Udalari eskatu gura diote kantoia hori argitzeko.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9

KULTURA /14

KULTURA /14

Lan istripua, Makatzenan

Joan den astelehenan, langile bat hil zen, Makatzena kalean gertatutako lan istripu baten.

Ekon taldearen agurra

Bihar, zapatua, Ekon taldeak agur esango die eszenatokiei. Gaztetxean ipini dute hitzordua.

XVII. Arrasate Lehiaketak

AEDk XVII. Arrasate Lehiaketak antolatu ditu. Dagoeneko, lanak aurkezteko epea zabalik dago.

ASTEKO DATUA

2.524

EURO BALIO DU ETXEBIZITZA METRO KOADRO BAKOITZAK

Arrasateko etxe agentziek aditzera eman dutenez, uztailean Arrasaten etxebizitza metro koadro bakoitzak 2.524 euro (420.000 pezeta) balio zuen. Hain zuzen ere, joan den urtetik %17,9 igo da.

BESTEKE SANA



Jatorrian aurrerakotzat har bazitekeen ere, MCCk 50eko hamarkadaren hasieran bultzatu

zuen proiektua frankismoaren azken garaiko aparatu estatalak diseinatu zuen plan baten kontrolpean geratu zen; planak AEBen aholkuei jarraitu zien eta Opus Deiren mende egon zen, eta beraren xedea euskal langileen mugimendu berria desaktibatzea zen; izan ere, mugimendu hori indar handiz hazten ari zen Gipuzkoako Leintz haranean. Beste helburu bat kooperatibismo eredu propio baten garapena zapuztea zen. Franco hil ondoren, Opusek boterea galdu zuela eta Etxe Zuriarekiko kontaktuak aprobetxatu, EAJk taldearen kontrola bereganatu zuen; teknokrata jeltzaleek jarraipena eman diote euskal independentismoaren nahiak zapuztu dituen proiektu sozio-ekonomiko eta politiko horri”
‘KALE GORRIA’/03-05-01

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Zubiazpia 2 eskuma

Ez dut ezer berririk esango, etxebizitzak inguru honetan oso garesti daudela esaten badut. Egia da gainera azken egun hauetan komunikabide ezberdinak etxebizitzaren prezioen igoeren datuak ematen ari direla, eta gai hau oso modan dagoela.

Baina ez da gai hau modan egoteak hau idaztera bultzatzen nauena, entzun eta ikusten ditudan beste historiak baizik. Lagun asko ditut etxea erosi berri, edo erostekotan, edo erosteko gogoarekin daudena, baina erosi ezin dituztenak. Eta erosi esan dut, oraindik ere jende gutxi dagoelako alokairuan bizitzen dena. Arrasaten alokatzeko etxe asko unibertsitateko ikasle beteta daude, eta ez prezio merkean. Azken honek alokairuaren merkatua zailago egiten du.

Bestalde, etxea erosi nahi duenak, bere bizitza proiektua etxeokarekin bat egin behar du (eta banku edo kutzarekin). Hurrengo urte askotan etxea-

rentzako izango baita irabazten duen diruaren zati handi bat, etxea lortzen badu. Azken hau ere, nahiz eta dirua izan, lan oso zaila delako.

Ezin badu etxea erosi, bere bizi asmoak bere ahalmenetara murriztu beharko ditu, eta dagoen lekuan bizitzen jarraitu

behar. Agian gurasoekin, baina garrantzitsuena da ezin duela eraman nahi duen bizitza estiloa.

Benetan egoera pertsonal asko daudela entzuten ditugun zifren azpian. Kasu honetan gazteei dagokio-

nez behintzat egoera txarrak daude kasu honetan. Nik bizi nuen pasarte batekin labor daiteke guztia (eta idazki honi izena ematen diona, alegia). Aspaldi nire etxea imajinatzen nuenean, Zerrajerako iturrira zihoan zubiaren azpian nire etxebizitza izango nuela uste nuen. Zubia bota zutenean pena handia hartu nuen, nire txartelean jartzen hasia nintzen Zubiazpia 2 eskuma helbidea.

“Arrasaten alokatzeko etxe asko unibertsitateko ikasle beteta daude, eta ez prezio merkean”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 24**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 25**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- DOMEKA, 26**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 27**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- MARTITZENA, 28**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 29**
Azkoaga, Iturriotz. 943 79 79 99
- EGUENA, 30**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 31**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZAZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

KULTUR ERROTA

Gaur, egubakoitza, Matxi-
nek *Ni izango naiz the
number one* antzezlan-
bakarrizketa eskainiko du
Jai Zale tabernan. 23:00etan
izango da, doan. AEDk
antolatu du, Kultur Errota-
ren laguntzarekin.

EGUENETAKO ZINEKLUBA

Eguenean, urriaren 30ean,
El crimen del padre Amaro
filma emango dute Amaia
Udal Antzokian, 21:30ean.

'LAS PUNKIS TAMBIEN LLORAN'

Datorren egubakoitzean,
urriaren 31n, Gasteizko
Detritus Teatrus taldeak
Las punkis también lloran
antzezlan eskainiko du
Emakume Txokoan.
19:00etan izango da.

AEK EGUNERAKO AUTOBUSA

Arrasateko Erdi AEK
euskaltegiak domekan AEK
Egunera, Abetxukora,
joateko autobusa antolatu
du. AEKn eta AEDn dituzue
txartelak salgai, zortzi
eurotan.

FEMINISMO ESKOLA

Eguaztenean, urriaren
29an, feminismo eskola
egingo dute Emakume
Txokoan. *Emakumeon
parte-hartzea gizartean*
gaiaren gainean eztabaida-
tuko dute. 19:00etan hasiko
da, eta euskaraz izango da.

AEDrenAGENDA

ZAHAR BERRI

Zahar Berrin euskaldun
berriak eta euskaldun
zaharrak behar dituzte
elkarri euskara praktika-
tzen laguntzeko. Jo AEDra
izena ematera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK

Berría egunkariaren
akzioak oraindik salgai
daude AEDn. Jo AEDra
bulego orduetan, goizez edo
arratsaldez.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00,
15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta
21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Ale-
cop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea,
Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35,
14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,
20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa,
Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iña-
rra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde,
Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

**UCEMen
arazoaren
gaineko osoko
bilkura**

UCEM taldeko enpresen egoera
zela-eta, osoko bilkura antolatu
zuten. Lagun askok kanpoan gel-
ditu behar izan zuten, eta osoko
bilkura oso laburra izan zen: ez
zen bozketarik izan, alderdi poli-
tiko guztiak lanuztea egiteko ados
zeudelako. Publikoak txaloka
agurtu zuten udalbatzarra.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ekubilkaria"



Ukabilkada. Ikubilkaria.
—*Ekubilkaria emon zoztan tripapian.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 21 **8 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 15 **25 °C**

**ASTEKO
EURIA (l/m²)** **6,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	25 °C	14 °C	1,7 l/m²
Eguena, 16	20 °C	13 °C	- l/m²
Egubakoitza, 17	20 °C	9 °C	- l/m²
Zapatua, 18	24 °C	11 °C	1,4 l/m²
Domeka, 19	21 °C	14 °C	0,9 l/m²
Astelehena, 20	17 °C	9 °C	4,1 l/m²
Martitzena, 21	17 °C	8 °C	0,3 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



**Iritziak inkesta
soziolinguistikoaz**

Aste honetan mahai-ingurua
egin dugu, Jaurlaritzak egin-
dako azken inkesta soziolin-
guistikoaren emaitzak azter-
tzeko. Hiru lagun izan dira irra-
tian iritzia ematen: Julen
Arexolaleiba irakaslea, Topa-
guneko presidente Joxemari
Muxika eta Emuneko langile
Amaia Gabilondo. Zapatuan eta
domekan berriro eskainiko
dugu saio hori. Bestetik, Juan
Carlos Irizar musikariarekin
izandako solasaldia ere errep-
ikatu dugu.



**Iratxe Aranburu
korrikalariarekin**

Martitzen goizean, 09:30ean,
Iratxe Aranburu korrikala-
riari egingo diogu elkarrizke-
ta. Iaz Behobiako lasterketan
lehen heldu zen emakumez-
koetan. Aurten ere badu parte
hartzeko asmoa. Gainera,
gugandik gertu egiten du lan
Iratxek, Bergarako Udaleko
kirol teknikaria da-eta.
Astelohen goizean, berriz,
ESK sindikatuak aste bukae-
ran Bilbon egingo duen biltza-
rraz berba egingo dugu. Ordez-
kari bi gonbidatu ditugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Juan
Carlos Irizar musikaria; Leire Okaranza
abokatua, izatezko bikoteen legeaz; Ekon
musika taldea...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia: Albisteak eta elkarriz-
keta.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera magazina: efe-
merideak, elkarrizketak, kirolak, aboka-
tua, dietista...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:06 Igo autobusera magazina:
sukaldea, literatura, musika, kontu-kontu-
ri, hileko galdera...
11:30 Arrasate Irratiko albistegia.
11:40 Igo autobusera magazina:
sarrerren zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunekin
osatutako musika tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren
errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra.

ASTEABIHITZETAN

Arrasateko bi enpresa Milango erakusketan

Arrasateko bi enpresa daude Milango makina-erreminta azokan, EMO azokan, hain zuzen ere. Fagor Automation eta Gamei enpresak dira Arrasatek Milanen dituen bi ordezkariak. Alor horretan lan egiten duten enpresendako oso garrantzitsua da nazioarteko azoketan esku hartzea, produktuak erakustez gain, bezero berriak ere lor daitezkeelako.

EMO azoka, Europan bi urtean behin egiten den makina-erreminta azoka, urriaren 28ra arte egongo da zabalik. 40 lurraldetako 1.000 erakusle daude han.

Polizia operazioari erantzuna

Arrasateko euskalgintzak bat egin zuen kontseiluak joan den zapatarako egindako manifestazio deialdiarekin. Zapatu arratsaldean mondragoetar askok hartu zuten esku Donostian egin zen manifestazio erraldoian.

Zapatuko kale agerraldiaz gain, eguen eta egubakoitz arratsaldean ere kale bilkura izan zen Arrasateko udaletxearen parean. Zapatuko kale agerraldian moduan, Arrasaten egindako bilkura horietan ere jende asko izan zen, poliziak egindako atxiloketak salatu guran.

Holiday zirkua Arrasaten

Joan den asteburuan jende asko izan zen Musakolan, Holiday zirkuko ikuskizunaz gozatzen. Arrasatearrez gain, ibarreko gainerako herrietako jendea ere egon da zirkuan. Asteburuko arrakasta ikusita, Holiday zirkukoek Arrasateko egonaldia luzatzea erabaki zuten, eta martitzenera arte egon ziren Musakolan.

Holiday zirkua urtero etortzen da Arrasatera; gaztetxoak deseaten egoten dira horrelako ikuskizunekin gozatzeke. Asteburuan Oñatin izango dira.



'Mahoma'-ri omenaldia Besaiden

Karlos Agirreurreta *Mahoma*-ren errautsak Besaide inguruan daude domeka ezker. 300 lagun inguru elkartu ziren domeka eguerdian Besaiden eta omenaldi beroa egin zioten RIPeko abeslari ohiari. Txistulari, dantzari, senitarteko eta lagun askok lagunduta zabaldu zituzten errautsak airean.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Albiste on eta txarrak

Aste honetan, betiko moduan, berri on eta txar asko jaso ditugu. Batzuk gure orrialdeetatik pasatu dira eta beste batzuk ez. Aste guztietako kontua, badakizue.

Aste honetan ere izan da ezbeharririk herrian. Besteak beste, Makatzenen jazotako lan istripu baten langile bat hil da, udaz geroztik herrian hiltzen den bigarrena.

Edozein albistegitan berri txarrak onak baino gehiago izaten diren arren, aste honetan berri on bat jaso dugu. Ona baino gehiago, ezustekoa. Joan den astean atxilotu zituzten euskaltzaleez ari naiz. Beste mila auzitan moduan, euren errugabetasuna agerian zegoen, baina ezagun da Madrilgo epaileek duten jarrera itsua. Horren adibide, *Euskaldunon Egun-*

karia itxi zutenean espetxeratu zituzten lagunak, eta beste asko.

Bidegabekeria handia dago munduan. Zer esanik ez muturrera joatearren, esaterako, Palestinan. Aste honetan bi palestinarrek berbaldia egin dute herrian. Komite Internazionalistek erronka polita egin dute. Palestinarrak oso egoera txarrean daude eta Israelgo gobernuak ez du inongo lotsarik, AEBen laguntza eta besteen ezaxola daukalako.

ASTEKOIRUDIA



JULEN IRIONDO

LANGILE BAT HIL ZEN ASTELEHEN ARRATSALDEAN MAKATZENAN

Joan den astelehenean, Makatzenen egiten dabil-tzan garajeetan lanean zebilen langile bat hil egin zen. Eraikuntza lanetan materiala garraiatzeko erabiltzen den Dumper motako makina bat gainera jausi zitzaion, eta momentuan bertan hil zen. A.D. izeneko langileak 33 urte zituen, eta Aretxa-

baletako Frixi enpresarendako zebilen lanean. Gertaera salatzeke, eguaztenean, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta CCOO sindikatuek deituta kale bilkura egin zuten. Oraingo asteko hildakoarekin, Gipuzkoan 25 lagun hil dira urtarriletik hona lanean zebiltzala. Arrasaten bigarrena da. /ARRASATE PRESS

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



KONTRATAK

IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE

GRAFITIAK/ 'Ukan' eta 'Nase': Arrasaten grafitigintzan dabiltzan herriko gazteak

“Beti etortzen da norbait marmarka, baina jendeak errespetatu egiten gaitu”

XABIER URZELAI

Argazkian azaltzen diren bi mondragoetarrek *Ukan* eta *Nase* izenordearekin sinatzen dute. Gurago dute euren izenen berri ez eman, grafitiak egiteagatik arazo bat baino gehiago izan dute-eta. Batzuen ustez zikinkeria, beste batzuen ustez margotzeko abilezia. Euren esanetan, margoen bidezko aldarrikapena.

Nase eta *Ukan* aspaldi hasi ziren grafitiak egiten; *Nase*-ren esanetan bost urte bai, gutxienez: “Aurreko baten 1998an egindako lan bat ikusi nuen, eta ordurako bolumenak egiten nituen. Horrek esan gura du ordurako denboraxoa neramala grafitiak egiten”. *Ukan* geroago hasi zen, 1999a inguruan: “Ordurako *Nase*-ren lan asko zeuden kalean, eta apurka-apurka neu ere hasi nintzen. Eskolan margotzen ibiltzen nintzen, eta espraia probatzea erabaki nuen”.

Nase bakarrik ibiltzen zen grafitiak egiten, eta gustura hartu zuen *Ukan*: “Bakarrik ibiltzen aspertu egin nintzen, eta utzi egin nion margotzeari. Hala, *Ukan* hasi zenean poztu egin nintzen, eta elkarrekin hasi ginen”. Bi mondragoetar horiek egiten dituzten grafiti gehienak euren sinadurak dira, baina marrazkiak ere egiten dituzte: “Azken baten, hori da gure helburuetako bat: gure sinadura ahalik eta leku gehien-tsuenetan ikustea”.

ESTILO PROPIOA LANTZEN

Grafitiak egiteko estilo propioa izatea ez da batere erraza. *Ukan*-ek dioenez, oraindik ez du bere estiloa zehaztu: “Hainbat urte daramatzat margoak egiten, eta oraindik ez dut nire estiloa landu. Askotariko gauzak egiten ditut, probatzen nabil, eta denborarekin erabakiko dut zer egiten dudan gusturago. *Nase*-k urte gehiago daramatza grafitiak egiten, eta dagoeneko estilo propioa daukela esango nuke”.

Nase-k argi dauka azken urteotan euren margotzeko modua asko aldatu dela: “Hasieran ez genuen margotzeko teknika ondo menderatzen, eta sekulako *makarradak* egiten genituen. Izan ere, grafitiak oso beteta zeuden; irudi askorekin eta kolore biziak. Orain, kolore leunagoak erabiltzen ditugu, eta margoak landuago daude”.

Bi grafitigile horiek begi-bistan dauden hormen bila ibiltzen dira: “Guk ez dugu gura leku ezkutuetan margotu. Gure lanak ahalik eta jende gehienak ikustea gura dugu, eta horregatik begi-bistan dauden lekuetan margotzen dugu. Horrek, baina, batzuetan arazoak ekartzen ditu.



Espraiak hartzen dituzten bakoitzean, gaztetxoak begira geratzen dira, baita nagusiak ere.

“Hemen ertzainekin ez dugu arazo handirik izaten; dagoeneko ezagutu egiten gaituzte”

Leku ezkutuetan margotuz gero, jendeak ez du ezer esaten; ez onerako ezta txarrerako ere”. Horren harira, zer edo non margotuko

“Grafitiak egiterako orduan estilo propioa izatea garrantzitsua da, baita gaitza ere”

luketen galdetuz gero, *Nase*-k oso argi dauka: “New Yorkeko metroan margotuko nuke gustura, horrek daukan esanguragatik.

“Arrasateko Udalak orain arte errespetatu egin ditu gure margoak, ez ditu ezabatu”

Hemen, berriz, eraikin bat margotuko nuke, goitik behera eta oso-osorik. Leihu gutxi eta horma askoko eraikin bat; lan ikus-

garrria eta polita egiten ahaleginduko nintzateke”.

ARRASATEN ARAZO GUTXI

Kalean margotzeagatik izan dituzten arazoan gainean galdetu diegu bi arrasatear horiei. Euren esanetan Arrasaten arazo gutxi izaten dituzte: “Jendeak, orokorrean, begi onez hartzen ditu grafitiak. Herritar asko etortzen da guregana jakinguraz, eta margo politak egiten ditugula esaten digute. Horrek poztu egiten gaitu. Baina badira marmarrean etortzen direnak ere, horrelakoak gure etxean egiteko esanez”.

Ertzainen gainean ere galdetu diegu: “Ez digute kasu handirik egiten. Hasieran bai; ea zertan genbiltzan galdetzen ziguten, baina dagoeneko ezagutu egiten gaituzte. Orain, gure datuak eman eta gero, grafitiak zelan egiten ditugun begira geratzen dira”.

Grafiti bat baino gehiago bukatu barik utzi behar izan dute: “Orain dela gutxi, margo polit bat egiten genbiltzala, bizilagun batek ertzainei deitu zien, eta berehala etorri ziren. Ertzainek grafitia bere horretan uzteko esan ziguten, eta guk, horrela zatarrago geratuko zelakoan, amaitzen uzteko eskatu genien. Orduan, beste bizilagun bat etorri zen; horma haren jabea nor zen bazekiela esan zuen, eta guk ez genuela inongo kalterik egiten. Margotzen jarraitzeko eskatu zigun, baina ertzainek ez ziguten utzi. Han geratu zen grafitia, amaitu barik”. Udalak ez du euren lanak

Azaroaren 8an hip-hop festa

Azaroaren 8an hip-hop festa egingo dute Arrasateko gaztetxean. Lehenengo aldia da Arrasaten horrelako festa bat egiten dutena, eta denbora luzea behar izan dute antolatzeke: “Denbora luzea daramagu festa hori antolatu guran, eta ez dakigu jendeak zelan erantzungo duen. Ez da erraza horrelako festa bat antolatzea, kanpotik jende asko ekarri behar da-eta”. Hip-hop festan gauza asko izango dira: grafitiak, *breakdance* egiteko aukera, *scratch* erakustaldia, DJak eta hip-hop kontzertua, besteak beste.

Arrasaten hip-hop musikak gero eta jarraitzaile gehiago ditu, eta festak musika estilo hori bultzatzeko eta aditzera emateko balio izango duela uste du *Nase*-k. Hala ere, hori ez da antolatzaileen helburu bakarra: “Azken baten, zerbait ezberdina egin gura dugu. Hemen ez da horrelako festarik egiten, eta egunerokoa ez den

zerbait eskaini gura dugu. Gure asmoa ez da etekin ekonomikoa ateratzea; horrelako festek ez dute dirurik ematen, baina ez genuke dirua galdu gura; askorik ez behintzat. Horregatik, festa horretan parte hartzera gonbidatzen zaituztet”.

Lehen ere esan dugu lehenengo hip-hop festa izango dela. Hala ere, antolatzaileek beste asmo bat ere badute buruan: “Azaroaren 8an egingo dugun hip-hop festak herriaren erantzuna neurtuko du. Gure asmoa da uda partean hip-hop festa handi bat egitea, Monterronen. Festa hori egiteko, baina, azaroko festak arrakastatsua izan beharko du. Jendeak ondo erantzuten badu, udako festa egitea errazagoa izango da. Horrez gain, ikusi egin beharko da zenbat dirulaguntza ematen diguten eta Udalak ze jarrera agertzen duen. Sekulakoa izango litzateke Monterronen horrelako festa bat egitea”.

ezabatzeko erabakirik hartu, errespetatu egiten dituzte: "Askotan gure grafitiak pintaketan ondoan egoten dira. Pintaketak ezabatu egiten dituzte, eta gure margoak han uzten dituzte, ez dituzte ukitzen".

Estatuko herri eta hiriburuetan grafitiak egiteagatik isunak jartzen dituzte, baina *Ukan*-ek ez du uste hemen horrelakorik egingo dutenik: "Esango nuke hemengo polizia guri begira egotea baino ardura handiagoak dituela, eta uste dut horregatik uzten gaituztela bakean".

Horren harira, Granadan gauza bitxia gertatzen da: "Granadan estatuko grafitigile onenetako bat dago, oso estilo berezia duena. Artista hutsa da; bere lanak ikusgarriak dira. Kontua da polizia behin baino gehiagotan atxilotu duela eta hainbat salaketa jarri dizkiotela. Hala ere, hango Udalak turistendako *tour* bat prestatu du: dirua egiten dute mutil horren margoak erakusten".

Ibarrean gazte gutxi dabilta grafitiak egiten. Horregatik, *Ukan* eta *Nase* Gasteizera joaten dira askotan: "Han lagun asko ditugu, eta margo asko egiten dituzte. Beste batzuen lanak ikusita asko ikasten da; Gasteizen maila oneko jendea dago". Gainerako hiriburuetan ere badaude grafitigileak, baina *Nase*-ren esanetan Gasteizen dago mugimendu handien: "Esan didatenez Donostian oso jende gutxi dabil kalean margoak egiten. Pentsatzen hasita, gustura egingo nuke Kontxan grafiti handi bat".

GEROAGO ETA ONARTUAGO?

Badirudi grafitiak geroago eta onartuago daudela; jendeak kaleko margoak apurka-apurka arte-

"Beste leku batzuetan grafitigileek erakusketak egiten dituzte"

"Gure lanak balio bat du: batzuek garestia dela esaten dute; beste batzuek gustura ordaintzen dute"

"Azaroan grafitien gaineko ikastaroa egingo dugu, eta gazteak animatzea espero dugu"

arekin lotzen ditu. *Ukan*-en esanetan, berriz, leku batetik bestera gauzak asko aldatzen dira: "Italian izan nintzenean, egunkaritan irakurri nuen grafitiak egiteagatik isunak jartzen hasi behar zirela. Alemanian, berriz, kaleko margoak ez daude gaizki ikusita, eta erakusketak egiten dituzte. Eta New Yorkeko areto garrantzitsu batzuetan hainbat erakusketa egin dituzte". Badirudi hemen ere hasi direla apurka-apurka horrelakoak egiten: "Gasteizko Artium museoa era-



XABIER URZELAI

Musakolako industria gunean dago *Ukan*-en eta *Nase*-ren azken lana; oraindik amaitu gabe dago.

kusketa bateko iragarkia grafitiekin egin behar dute, eta gure lagunak dabilta horretan; horrelako gauzak eskertu egiten dira".

GASTU HANDIAK

Arrasaten osteratxo bat egiten duenak bi gazte horiek egin dituzten lanak ikusi ahal izango ditu: Iturripen, Musakolan, Otalaran, Arimazubin, San Andresen, Santa Barbaran... Grafiti horiek gutxiak egiteko diru asko behar izan dute, eta euren poltsikotik jarri

dute diru hori: "Orain, gainera, espraiak erabiltzeaz gain, hormak margotzeko pintura, zinta bereziak, hormak margotzeko arrabolak... Material asko erabiltzen dugu eta material hori oso garestia da. Hala ere, gurago dut dirua taberna zuloan baino grafitiak egiteko materialean gastatu. Eta ez da diru kontua bakarrik; denbora zerbaitetan aprobetxatzen dugula esango nuke".



Material hori erosteko orain arte euren poltsikotik jarri dute

dirua, baina azkenaldian eskaini dieten lan batzuei esker gastatutako dirutzako zati txiki bat amortizatu ahal izan dute: "Azkenaldian hainbat lan egin ditugu: enpresetako hormak margotu, tabernak margotu... Musakolako kiroldegia berri zutenean AUKEAren gaineko margo bat egiteko eskatu ziguten. Udatik hona hainbat negoziotako jabeek grafitiren bat egiteko eskatu digute; batzuek diru larregi eskatzen dugula esaten digute. Beste batzuek, ordea, gure lanari ematen diogun balorea errespetatzen dute, eta gustura geratzen dira egiten dugun lanarekin. Azken baten, margolari batek horma zuriz margotzearen diru dezentte kobratzen du, eta guk, lan handiagoa egiteaz gain, sormena erabiltzen dugu. Gure lanak balio bat du; ordaintzeko prest egonez gero, ondo; bestela kalean jarraituko dugu margotzen, orain arte ere horrela ibili gara-eta".

GRAFITI IKASTAROA

Lehen ere esan dugu Arrasaten eurak bakarrik dabilzala grafitigintzan. Horrek pena ematen die: "Kanpoko herri batera joaten garen bakoitzean jende gaztea ikusten dugu margoak egiten, eta poztu egiten gara. Arrasaten, baina, ez dabil jende gazterik". Grafitiak modan daudela dio *Nase*-k, eta hori aprobetxatu egin behar da: "Egin didaten eskaintzetako bat ikastaro bat ematea izan da. Ikastaro hori azaroan hasiko da, eta Erguingo gazte txokoan egingo dugu. Espero dut horrelako ikastaro batekin jende gaztea animatzea, eta grafitien kultura bultzatzea".

Seguru lehenago edo geroago bi lagun horiek kalean margotzen ikusiko dituzuela. Kaleko margoen gainean aldeko edo kontrako erabakia izanda ere, ezer esan aurretik ikusi zelan egiten duten lan, merezi du-eta.



XABIER URZELAI

Normalean euren sinadurak margotzen dituzte, baina tartean, irudiak ere egiten dituzte.

OGASUNA/ 2004rako udal ordenantza fiskalak onartu ditu udalbatzarrak, behin-behinerako

Uraren zerga kobratzeko modua aldatuko dute, gehiegizko ur-kontsumoa zigortzeko

UBANE MADERA

Datorren urtetik aurrera, batez beste %3,5 igoko dira Arrasaten zergak. Kontsumo Prezioen Indizearen arabera kalkulatu dute igoera orokor hori. Izan ere, gaur egun KPI delakoa %2,9an dagoen arren, urte bukaeran %3,5ean egongo dela uste du Udalak.

Ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean. Gai bakarra zuten zerrendan: 2004rako ordenantza fiskalak. Eta alderdiek aho batez onartu zuten Ogasun batzordeak egindako proposamena. Horren arabera, oro har, %3,5 igoko dira zergak datorren urtean. Hori bai, salbuespenak ere izango dira.

BESTELAKO IGOERAK

Hain zuzen ere, kirol zerbitzuetan %10 igoko dituzte datorren urtean AUKEAko abonua. Iturbide egoitzak eskaintzen duen zerbitzua, berriz, %5 igoko da, baita tutoretzapeko etxebizitza zerbitzua ere.

Laubideko parkingaren prezioa ere igoko dute, aspaldiko partez. Izan ere, zazpi urtean ez dute ezertxo ere igo. Hain justu, 10 zentimoko igoera izango du parkingak. Hala, 0,30etik 0,40ra igoko dute.

Bestalde, etxebizitzaren gaineko zerga KPI baino baxuagoa izango da: %3. Ez, ordea, Industria-rena. Kasu horretan, %8ko igoera izango du.

San Kristobal hilerriko zerbitzuei begiratzen badiegu, esan beharra dago errausketa zerbitzuari dagokionez arrasatearrek ez dutela orain arte baino gehiago ordaindu beharko. Bai, ordea, kanpotarrek. Hain zuzen, datorren urtean %20 gehiago ordain-



Abandonatutako ibilgailuak jasotzea kobratuko du Udalak: 51,75 euro turismoarengatik eta 15,50 bizikleta eta antzerkoarengatik.

Datuak zenbakitan

Etxeko ur zerbitzua, 50m³ arte:

Kuota finkoa: 5 €

Metro kubiko bakoitzeko: 0,40 €

100 m³ arte:

Kuota finko gehigarria: 10 €

Metro kubiko bakoitzeko: 0,80 €

Hilerriko zerbitzuak:

Panteoiak: 7.804 €

Hormako hilobiak (10 urterako): 565 €

Hezurtegia (10 urterako): 96,20 edo 113,80 €

Errausketa: 180 € (Arrasaten erroldatuta)

Beilatokia: 60 €

Ibilgailuen gaineko zerga, gehienek:

potentziaren arabera, turismoek: 33 eurotik

hasi eta 244 eurora arte; kamioiek: 78,22

eurotik 274,36 eurora arte.

Zaborra, etxeokak: 10,75 €

AUKEA: igerilekuko edo kiroldegiko

abonua: 93 € (18 urtetik gorakoak);

Abonu plusa: 139,50 € (18 urtetik gorakoak)

Txakurrak kaletik jaso eta gordetzea:

Jasotzea: 10 €

Eguneko mantenua: 4 €

Ibilgailuak erretiratzea: (turismoak) 51,75 €

Aldai hilerria zabaldu egingo dute Domu Santu egunerako

U.M.

Domu Santu eguna datorrela eta, Udalak Aldai hilerria zabaltzea erabaki du. Hain zuzen ere, datorren astean zabalduko dute, hilerren 27tik (astelehena) 31ra (egubakoitza). 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Eta gero, Domu Santu egunean bertan ere zabalik egongo da, gura duenak senide edo lagunak bisita ditzan. Egun horretako ordutegia 09:00etatik 18:30ak artekoa izango da.

Hori bai, esan beharra dago alde batetik hilerriko Maalako sarrera itxita egongo dela. Hortaz, Obenerrekatik bakarrik sar-

tu ahal izango da. Eta bestetik, hilerri barruan korridore bat itxita egongo dela, segurtasun arrazoiengatik. Dena dela, Aldai hilerriaz arduratzen den udal teknikariak esan digu korridore bat itxita egon arren horrek ez diela kalterik eragingo panteoiak-eta bisitatzaera doazenei.

Domu Santu egunean hilerria zabaltzeko, besteak beste, ingurua txukuntzen ibili dira egunotan. Behin Domu Santu eguna pasatuta, asmoa da hilerria berriro ixtea eta gorpuzkiak ateratzen segitzea hilerria itxita dagoela. Oraindik 1.200 bat gorpuzki falta dira ateratzeko.



Datorren astean astelehenetik egubakoitzera zabalduko dute hilerria.

du beharko dute errausketa zerbitzu hori.

Kultura arloan ere bada aldaketarik. Izan ere, orain arte Amaia antzokia erabiltzeko tasa finakak bazeuden ere, hemendik aurrera antzoki hori erabiltzea kosteen arabera ordaindu beharko da. Gauza bera egin beharko da obra lizentziak ematearren. Kostatzen denaren arabera kobratuko dute zerga hori.

ELBARRIENDAKO ONURAGARRIA

Ibilgailuei dagokienez, oro har, zerga hori %5,42 igoko dute. Hori bai, gidari elbarriek onurak izango dituzte zerga horretan. Izan ere, %33tik gorako elbarritasuna duten gidariek ez dute ibilgailuen gaineko zerga ordaindu beharko, betiere ibilgailua euren izenean matrikulatuta badago.

URAREN TARIFA

Baina, duda barik, aldaketarik nabarmenena uraren tarifa dago. Erabat aldatuko da eta zerga hori kobratzeko modua. Horren arabera, tarifa finko bat ordaindu beharko dugu ur-zerbitzuarengatik eta beste tarifa aldakor bat kontsumitzen den ur-kopuruaren arabera. Hala, zenbat eta ur gehiago kontsumitu orduan eta garestiago ordaindu beharko dugu. Oro har, gehiegizko ur-kontsumoa zigortzea da helburua. Gauzak horrela, 50 m³ arte ez da kontsumoa zigortuko. Gutxi gorabehera kopuru hori edo hortik behera kontsumitzen du familia arruntak (bi lagun baino gehiagokoak). Hori bai, 50 m³-tik gorako kontsumoa bereziki garestituko dute.

Horrez gainera, besteak beste, beste bi tasa egongo dira datorren urtean: abandonatutako ibilgailuak erretiratzea eta gordetzea eta txakurrak kaletik jasotzea eta gordetzea.

LABUR

Pedro Biteriren gaineko liburua argitaratuko dute

Euskara eta Kultura Sustapenerako batzordeak Pedro Biteriren gaineko biografia argitaratzea proposatu dio oraingo asteko Gobernu batzordeari; batzorde horrek onartu egin du proposamena, eta, besteak beste, 4.600 euro pasatxoko aurrekontua onartu du Pedro Biteriren gaineko liburua argitaratzeko. Adierazitakoaren arabera, gero, azaroaren 28an aurkeztuko dute liburua jendaurrean, Amaia antzokian.

UDALA/ Osoko bilkura

Omicoren jarrera kritikatu dute zenbait langilek

UBANE MADERA

Omicoren enpresako langileak protesta ekimenak egiten dabilta azkenaldian. Martitzean kalera atera ziren, lan erregularizazioaren aurka daudela esateko eta diskriminazioa salatzeke.

Besteak beste, enpresaren jokiera eta jarrera kritikatu zuten Omico enpresako langileek. Langile batzuekiko duten jarrera diskriminatzailea salatu zuten, baita enpresak langileekiko erakusten duen larderia ere.

LAB sindikatuak lantegian duen ordezkarietako batek, Atarratz Etxeberiak, Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, badi-rudi enpresa gaur egun ez dela bidegarria. Are gehiago, lan egoera dela-eta, enpresak lan erregularizazio espedientea aurkeztu zien langileei. Hala ere, lan egoeraren arabera, aldatu edo bertan behera utziko dute espediente hori. Horrek langileen egonezina sortu du. Eta, langileek egoera argitu guran seriotasuna eskatzen diote enpresari. Baita irtenbide bat ere, eta irtenbide segurua.

45 langile ditu Omicok eta etxetresna elektrikoendako osagaiak



Enpresaren jarrera agintzailea kritikatu zuten langileek.

egiten ditu. Lantegi hori Coprecik sortu zuen bere garaian eta gaur egun jabegoaren zati bat dauka: %33a, hain zuzen. Beste zatia, berriz, Italiako enpresa batena da, eta langileek salatu dute zuzendaritzak ez duela interesik enpresaren etorkizunari dagokionez. Esandakoaren arabera, gerentzia

hilean behin etortzen da Italiatik eta bitartean enpresako zuzendaritzan daudenek gauzak korapilatu baino ez dituzte egiten. Gauzak horrela, Fagorren Kontseilu Sozialera jo dute, irtenbide zuzenaren bila. Bitartean, langileek batzarrrak egiten jarraituko dute, lan arazoa konpontzeko ahaleginetan.

Kultura etxeko lanak 2005erako bukatuko dituzte

UBANE MADERA

2005era arte luzatuko dira kultura etxea egiteko lanak. Beraz, atzerapenarekin estreinatuko dugu eraikina. San Frantzisko komentu zaharraren hormak hasieran uste baino dezente ahulago zeuden.

2002ko uztailean hasi zituzten San Frantzisko komentua kultura etxe bihurtzeko lanak. Hasieran, 2004rako bukatuta egongo zirela espero zuten. Baina, lanak egin ahala, ikusi zuten eraikina- ren hormen egoera uste baino eskasagoa zela. Horren ondorioz, lanak gelditu egin behar izan zituzten (uda partean), zer egin erabakitzeke. Eta, azkenean,

hasierako proiektua aldatu egin behar izan zuten. Gero, berrito hasi ziren lanean. Baina, horrenbeste arazok lanen amaiera atzerarazi dute. Horrekin batera, hasierako aurrekontua (ia lau milioi euro) ere aldatu da. Dezen- te garestitu dira lanak. Eta Uda- la finantzabide berrien bila dabil.


Edozelan ere, 2005erako kultura etxea izango dugula jakin- razi du Udalak.

MAKINA BAT ZERBITZU IZANGO DITU

Besteak beste, kultura etxean egongo dira liburutegiko zerbitzuak (haur eta gazteen eta helduen liburutegia, hemeroteka eta era- kusketa gela), balio anitzeko hitzaldi aretoa, ikasketa gela eta aire zabaleko ekintzendako lekua.



NEREA ZUBIETE



Omenaldi beroa herritarren ordezkari ohiei

Zapatuan, alkate ohi Xabier Zubizarretari eta haren ordezkari Ino Galparsorori omenaldia egin zieten. Laurehun lagundik gora batu zen Uarkapen. Herritarren txalo zaparradaren artean hartu zituzten bi lagunak, eta ohorezko aureskua dantzatu zieten. Txalapartaren doinuak eta bertsolarien kantuak helarazi zituzten. Eta horren guztiaren ostean, herri bazkaria egin zuten. Bi omenduak hunkituta eta pozik azaldu ziren, batez ere, ez bata ez besteak ez zuelako espero halakorik. Biek hala biek adierazi zuten omenaldi hori, oro har, ezker abertzaleak merezi duela.

Arrasateko PSE-EEK gobernua "autista" dela salatu zuten

U.M.

PSE-EEren esanetan, udal gobernua "autista" da. Arrasateko Egitamu Orokorrengatik kezka azaldu zuen Paco Garcia sozialistak, eta salatu zuen oraindik ez dutela jakinarazi agintaldirako udal politika.

Agintaldia hasi zenetik 100 egun pasatu direnean, PSE-EEK udal gobernuaren ekintzen balorazioa egin zuen. PSE-EEren kezka nagusia da ea zer gertatuko den Egitamu Orokorrekin. Prentsaurrekoan salatu zuten, besteak beste, gobernua eratu zenetik hiru hila-

bete pasatu direla eta gobernu horrek oraindik ez duela aditzera eman zein izango den datozen lau urteotan garatuko duen udal politika, batez ere, Egitamu Orokorreari eta babes ofizialeko etxebizitzetara lotutakoa. Paco Garcia gogorarazi zuen gaur egun gobernuan dauden alderdietako bi (EAJ eta EB) jatorrizko Egitamu Orokorrearen kontra zeudela; aldiz, EA aldekoa zela. Hortaz, jakin gura du zelan uztaileko dituzten orain arteko desadostasun horiek Egitamu Orokorra garatzeko.

Horrez gainera, EBren gainean esan zuten boterea lortu besterik ez dutela gura.



LABUR

Astelehenean osoko bilkura izango da

Urriari dagokion ohiko osoko bilkura egingo du astelehenean udalbatzarra. Jorratuko dituzten gaien artean, alderdi sozialistak aurkeztuko dituen pare bat mozio daude: Santa Teresa auzoaren eta herriko aisialdiaren gainekoak.

AKEiko lanak atzeratu egin dira

AKEI berreskuratzeko lanak urriari hasi behar bazituzten ere, burokrasia kontuengatik atzeratu egin da lanak esleitzeko lehiaketa. Horren ondorioz, ez dakite zehatz-mehatz noiz hasiko dituzten kutsatutako lurrok garbitzeko lanak.

Laugarren biltegia Zerrajeran

Dagoeneko laugarren biltegia aurkitu dute Zerrajerako lurretan. Edozelan ere, oraindik ez dira hasi barruko erre- gaia ateratzen. Bestalde, lurpean zenbat biltegi geratzen diren jakiteko azterketak egi- ten segituko dute.



AMAIUR TABERNAKO LEHENENGO MUS TXAPELKETA BIHAR

Bihar, 16:30ean, Amaiur tabernan Mus Txapelketa izango da jokoan. Txapelketa horretako irabazleek 500 euro eskuratuko dituzte. Horrez gain, lehenengo lau bikoteek sariak jasoko dituzte: diruaz gain, trofeoak, diplomak eta edariak ere izango dira. 500 euroko saria banatu ahal izateko, baina, gutxienez 20 bikotek hartu beharko dute esku. Bikote gutxiago izango balira, horrela egingo lukete sari banaketa: lehenengo bikoteak izenematean jasotako diruaren %50, trofeoa, diploma eta edariak jasoko lituzke; bigarrenak izenematean jasotako %24, trofeoa eta edariak; hirugarrenak, jasotako diruaren %12 eta edariak; eta laugarren bikoteak, diruaren %6 eta edariak. Mus Txapelketan parte hartzeko, bikote bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu.



ALBACETEREN KONTRA GALDUTA ERE, ONDO BAINO HOBETO IBILI ZIREN HAUEK

Argazkiko koadrila Albaceten egon zen aurreko aste bukaeran. Realaren partidua ikustera joan ziren. Zapatu goizean irten, eta eguerdi partean iritsi ziren Albacetera. Txikiteoa egin eta gero, El Callejon jatetxean bazkaldu zuten; ondo bazkaldu ere! Arratsaldean ere Albaceterako kaleetan ibili ziren, eta hango jarraitzaile eta herritarrekin izan zuten tratua ona azpimarratu gura izan dute. Gainera, zentimo baten truke laban txiki bana opari egin zieten. Ezin esan partidua ikusgarria ikusi zutenik, eta partidua amaieran Aitorrekin elkartu zirenean jokalariei mondragoetarrak zera esan zien, penagarria zela Real animatzera haraino joatea eta eurek partidua hori egitea. Beste baten izango da.

ARROSTAITZ DANTZA TALDEKOAK PORT AVENTURAN

Urriaren 11ko eta 12ko aste bukaeran, Arrostitz Dantza Taldeko lagunak Port Aventuran izan ziren. Normalean dantza egiteko elkartzen dira, eta behingoagatik, dantza kontuak alde batera utzi eta aste bukaera bat elkarrekin pasatzeko asmoz joan ziren Salou aldera. Dantza egin zuten, baina zapatu gauean. Bi egunetan bisitatu zuten Port Aventura; edozein ere, domekan nahikoa zuten zutik egotearekin.



MIREN ARRIETA PERFUMERIA

Zerkaosteta 12
Tel.: 943 79 00 35
ARRASATE

Urriaren 27tik 31ra
arteko promozioa

Kanebo etxe-
edertasun aholkulari
batek informatuko
zaitu eta tratamendu
esklusiboa
eskainiko dizu.

Ezinbestekoa
txanda hartzea

Erregalu bat jasoko
duzu Kanebo
produktuak
erostegatik

Izakinak bukatu arte.

Kanebo

PILOTA

Bihar, Titinek eta Asier Olaizolak lau t'erdiaren barruan jokatuko dute Uarkapen

Pilota jaialdiko partidu erakargarriena Lau t'erdiko Txapelketakoa izango da, baina beste bi partidu ere izango dira ikusgai

XABIER URZELAI

Bihar arratsaldean pilota jaialdi ikusgarria izango da Uarkapen. Horrelako pilota partiduek neurtzen dute herri batek duen pilotarako zaletasuna. Maila oneko bi aurrelari izango dira nor baino nor gehiago Uarkapen: Titin eta Asier Olaizola.

Punta-puntako pilota partidua ikusi gura duenak bihar izango du horretarako aukera paregabea. Urrun joan barik, Uarkapen, Lau t'erdiko Txapelketa barruan, Titinek eta Asier Olaizolak indarrak neurtuko dituzte. Baliteke errioxarra izatea faboritua, baina nafarra sasoian dagoenean ez da kontrario makala.

HIRU PARTIDU GUZTIRA

Biharko pilota jaialdian hiru partidu egongo dira ikusgai. Lehenengo partidua da erakargarriena; lau t'erdiaren barruan jokatuko dutena, alegia. Ondoren, binakako bi partidu izango dira ikusgai: Arbizuk eta Armenarizek Saralegiren eta Pascualen kontra jokatuko dute. Arratsaldeko hirugarren partiduan, berriz, Azpiroz eta Pinedo bikoteak Leiza eta Begino izango ditu aurrez aurre. Ez da pilota jaialdi makala, ezta gutxiago ere. Asegarce pilota enpresak, azken



Titinek eta Asier Olaizolak ikuskizun polita eskaini izan dute elkarren kontra jokatu duten bakoitzean.

momentuan, hiru norgehiagoka horien ordena aldatzea erabaki du. Hasieran baten, pilota jaialdiak Azpiroz-Pinedo eta Leiza-Begino bikoteen arteko partiduekin hasi behar zuen, baina esan bezala, azken

momentuan norgehiagoken ordena aldatzea erabaki dute.

SARRERAK 22 EURO

Pilota jaialdia bertatik bertara ikusi gura duenak 22 euro ordaindu beharko ditu. Sarrerak eros-

teko leihatilak partidua hasi baino ordu eta erdi lehenago irekiko dituzte, 15:30ean gutxi gorabehera. Hori bai, eskaera handia badago, leihatilak goizean ere zabalduko dituzte.

Bihar, Arrasateko pilota jai-

Pilota jaialdiko sarrerak 22 euro balio du; leihatilak 15:30ean irekiko dituzte

Horrelako pilota jaialdiek neurtzen dute herri batek duen pilotarako zaletasuna

Asegarcek partiduen ordena aldatzea erabaki du; partidu ikusgarrienarekin hasiko da jaialdia

diaz gain, izango da beste pilota partidurik: Balmasedan, lau t'erdian, Eugi eta Beloki izango dira nor baino nor gehiago.

AGR Arrasate 28-31 gailendu zitzaion Hegialde Auto taldeari

X.U.

Arrasateko lehen territorialeko taldeak hiru goleko aldearekin irabazi zien legazpiarrei. Zeingehiagoka gogorra espero zuten; edozelan ere, AGR Arrasatek, ondo jokatu zuen minutuetan, nagusitasun handia erakutsi zuen.

Norgehiagoka irabazteko AGR Arrasatek nahikoa izan zuen boladaka ondo jokatzearrekin. Pitxi Herreroren mutilek ondo baino hobeto jokatu zituzten partiduko lehenengo minutuak, eta berehala aurreratu ziren markagailuan (1-6). Arrasatek, baina, boladaka jokatzeko zuten hori. Lehenengo zatia amaitu zenerako, AGR Arrasatek galdua zuen markagailuko aldea (13-14).

Bigarren zatia hasieran indarrak parekatuta egon ziren. AGRren beste bolada on bati esker



Arrasate C taldeak gol bateko aldeagatik galdu zuen Ereintza taldearen kontra.

Arrasatek bost goleko aldea lortu zuen (23-28). Bat-batean, baina, mondragoetarrek behera egin, eta Hegialdek berdindu egin zuen norgehiagoka (28-28). Azkeneko minutuetan Pitxi-ren mutilek estutu egin zuten eta gailendu egin ziren (28-31). Bigarren terri-

torial mailan, berriz, Arrasate B taldeak 24-29 galdu zuen Pulporen kontra. Arrasate C taldeak ere galdu egin zuen; 18-19 nagusitu zuen Ereintza taldea.

Oraingo asteburuan, AGR Arrasatek domeka eguerdian jokatu du Urnietaren kontra.

Mondrak balio handiko puntua ekarri zuen Molinaotik

X.U.

Mondrak 1-1 egin zuen joan den zapatuan Trintxerperen kontra. Hamabigarren postuan egonda ere, Trintxerpek talde sendoa dela erakutsi zuen. Beste behin argi geratu zen preferente mailan sailkapenari begiratzeak balio txikia duela.

Liderraren kontra jokatu ere, Trintxerpe ez zen kikilduta zelairatu, ezta gutxiago ere. Jarrera erasokorra erakutsi zuen Pasaia Antxoko taldeak, eta lehenengo zatian Mondra baino gehiago izan zuen. Josu Zubiaren mutilek ez zuten gura moduan futbolearen egin, baina pasaiatarren erasoei erantzuteko gauza izan ziren. Lehenengo zatia huts eta huts amaitu zen.

Partiduko bi golak bigarren zatian etorri ziren. Trintxerpek gogotsu ekin zion bigarren zatia, eta Mondrak ez zuen eroso jokatu. Lehenengo zatian baino

zorrotzago, Trintxerpek partiduko lehenengo gola egin zuen. Gol horrekin konformatuta, pasaiatarrek atzera egin zuten, neurri handi baten, Mondrak gehiago arriskatu zuelako. Mondraren kontrarioa ondo ibili zen defentsa lanetan; ez zen erraza gol aukerak egitea, baina 80. minutuan, ezker hegalean egindako jokaldi baten ondorioz baloia Muxi-ri iritsi zitzaion, eta Mondrako erdilariak ez zuen barkatu (1-1).

Trintxerpe ez zen banakoa ere. Bi taldeek erasora jo zuten. Horri esker, azken hamar minutuak partiduko ikusgarrienak izan ziren, baina bi taldeetako inork ez zuen bigarren gola egi-terik lortu.

BIHAR, MONDRA VS ELGOIBAR

Lehenengo postuetan dauden Mondrak eta Elgoibarrek jokatu dute bihar Atxabalpen (16:30). Biek hala biek 14 puntu dituzte, eta lidertza dago jokoan.



Arrasateko Herensugeak beterano taldeak maila polita erakutsi zuen zapatuan Garagartzan.

OLAIA MONDRAGON

ERRUGBIA

Herensugeak taldea sasoian dago: hiruko torneoan eurak onenak

Seniorrek ezin izan zuten Liga Txapelketa hasi, Arratikoen zelaia amaitu barik zegoelako

XABIER URZELAI

Arrasateko beterano taldeak antolatutako hiruko torneo arakastatsua izan zen. Eguraldiak lagunduta, errugbiak gozatzeko aukera ona izan zen zapatuan; zelaitik kanpo ere ederto ibili ziren.

Zapatuan, Arrasateko Herensugeak, Frantzia aldeko Archivald taldeak eta Marbellako beteranoek hiruko torneo jokatu zuten. Mondragoetarrek antolatutako topaketan ondo baino hobeto ibili ziren guztiak: kanpotarrek, errugbian egiteaz gain, inguruak

ezagutzeko aukera ere izan zuten. Tornea zapatu arratsaldean jokatu zuten, eta Arrasateko Herensugeak izan ziren onenak. Lehenengo norgehiagokan Arrasate eta Marbella izan ziren nor baino nor gehiago; Arrasate 25-5 gailendu zitzaion Marbellari. Bigarren zeingehiagokan Marbellak eta Archivaldek neurtu zituzten indarrak. Partidu parekatua izan zen, eta marbellarrak bost puntuko aldearekin nagusitu ziren (10-5). Hiruko torneoko azken partidua Arrasateko Herensugeak eta Archivald taldekoek jokatu zuten. Ordurako jokalariek nekea nabari zuten;

Arrasatekoek, baina, hobeto jokatuta bost puntuko aldeagatik irabazi zuten (10-5).

ESKERRAK IOKIN USAOLA ENPRESARI

Arrasate Errugbi Taldeak esker-erak eman gura dizkio Iokin Usaola enpresari. Zelaia txarto egoten da, baina enpresa hori arduratzen da belarra mozteaz, eta egiten duten lanari esker errazagoa da Garagartzan jokatzea.

Azkenik, senior mailako taldeak oraingo asteburuan hasiko du Liga Txapelketa, Getxoren kontra. Joan den asteko partidua atzeratu egin zuten, Arratikoen zelai berria amaitu barik zegoelako.

SASKIBALOIA

Ointxe Arrasate Saskibaloitza Taldeak 72-92 galdu zuen liderraren kontra, Iturripen

Cafes Aitona taldeak argi erakutsi zuen zergatik den maila horretako liderra. Ointxe Arrasatek ezer gutxi egin ahal izan zuen, neurri handi baten donostiarrek defentsan erakutsi zuten sendotasunagatik. Lehenengo bi laurdenetan donostiarrak izan ziren nagusi. Hirugarren laurdenean Ointxe Arrasatek erreakzionatu egin zuen, baina ez zen markagailuari buelta emateko nahikoa izan.

Oraingo asteburuan Ointxe Arrasatek azken postuan dagoen Jarrilleros talde bizkaitarra izango du kontrario.



SAIOA KARATE TALDEA

Aretxabaletako txapelketan esku hartu zuten karateka mondragoetarrek.

Arrasateko hamaika karateka Gipuzkoako Txapelketan

Zapatu arratsaldean Gipuzkoako Federatu Mailako Txapelketa jokatu zuten Aretxabaletan, eta Arrasateko hamaika ordezkari izan zituzten: Xabier Lasagabaster, Carlos Sanchez, Mikel Del Rio, Aritz Fernandez, Daniel Barbero, Jon Rodriguez, Kerman Colino, Ander Hernandez, Tania Garcia, Ainara Bordes eta Izadi Arostegi izan ziren txapelketan. Karateka horiek guztiek zeukaten guztia eman zuten, eta lan biritan egin zuten. Horietako kara-

teka batzuk euren kategorietan onenak izan ziren.

LEHENENGO TXAPELKETAK

Zapatuan jokatu zuten moduko txapelketak karateka gazteei egoten dira zuzenduta. Gerriko marroia ez duten karatekek horrelako txapelketetan esku hartuta esperientzia hartzen dute. Batzuek lehenengo aldian txapelketan lehiatzen zirena, baina beste karateka batzuek esperientzia handia erakutsi zuten.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ANTZERKIA/ Kultur Errotak 'Ni izango naiz the number one' antzezlan antolatu du

Matxin antzerkilariak egungo usadioak kritikatuko ditu Jai Zalen

I.B.

Gaur, egubakoitza, AEDk ikuskizuna antolatu du Jai Zale tabernan, Kultur Errotaren bitartez. 23:00etan, Matxin antzerkilari iruindarrak *Ni izango naiz the number one* eskainiko du. Matxinek urte asko daramatza ikuskizunak egiten eta Arrasaten izana da.

Kultur Errotak berriro eutsi dio ikuskizunak antolatzeari, eta AEDri esker, hitzordua izango dugu gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan. Matxinek gaur egun gizaratean ditugun usadioei kritika zorrotza egingo die; zorrotza baino gehiago umoretsua. Akto-re iruindarrak ordubete eta hamar minutu iraungo duen antzerki-bakarriketa egingo du.

HISTORIAURREKO EHIZTARIA

Ni izango naiz the number one ikuskizunaren protagonista historiaurreko ehiztari bat da. Espiritu baten ahotsak ehiztariari esango dio zaharkitua dagoela eta eguneratu beharra duela. Ehiztariak, arduratuta, erritual bat egingo du, eta bere burua gaur egungo gizaratean bizi ahal izateko *prestatuko* du.

Bat-batean, ehiztari gizajoak egungo gizaratean ditugun ohitura xeble eta muturrekoenak ikasi beharko ditu, baita lortu ere. Besteak beste, poltsikoko telefonoa etengabe erabiliko du, ingelesez berba egingo du, erosketak gelditu barik egingo ditu, irudiari garrantzi handia emango dio, eta beste gauza asko.

Matxin aktorea kalean ikusten dituen jokoeretan eta gertae- retan oinarritu da antzezlan hori idazteko: "Kalean, batzuetan, asko harritzen duten gauzak ikusten dira: jokaerak, ohitura xebleak... Bada, hori guztia nahastu eta zelanbait puztu egin dut. Beldurgarria iruditzen zait ikus- tea bizi dugun gizarate zer bilakatzen dabilen. Gainera, horrek guztiorrek norberari ezintasuna sortzen dio. Hala, horri guztiorri egin gura izan diot kritika umoretsua, baina kritika, finean".

Matxinek *Ni izango naiz the number one* ikuskizuna aurtengo maiatzean estreinatu zuen. Lehenengo saioa Iruñean egin zuen, alde zaharreko herriko tabernan, eta oso harrera ona izan zuen. Horren ondoren, Iruñeko Udalak antolatu zuen antzerki eskolan eskaini zuen, eta lehenengo saria eman zioten.

Iruñean estreinatu zuenetik, Matxinek herri askotan antzeztu du lan hori, batez ere Kultur Errotaren bitartez: Nafarroako herri askotan, Gipuzkoan, Bizkaian... Gaur Arrasaten antzeztuko du eta laster Laudion, Lasarten, Andoainen...

Antzezlan hori hainbat esketz komikoz osatuta dago, *clown* eta mimo teknikak uztartzen ditu. Matxin bera da ikuskizunean lan egingo duen aktore bakarra. Hala ere, Matxinek badu laguntzaile bat; eta lagun horrek Matxini behar duen materiala emango dio eta musikaz arduratuko da.

Ikuskizun horrek ordubete eta hamar minutu iraungo duela esan dugu. Lanak oinarritzko haria dauka, baina Matxinek, egoeraren eta ikusleen momentuko erantzunaren arabera, inprobisaziorako tarte handiagoa uzten du.

Zer esanik ez Matxinek ikusleei laguntza eskatuko diela. Orain dela bi urte, Matxinek Arrasateko gaztetxean beste ikuskizun bat eskaini zuen eta ikusleen laguntzarekin, denen artean, oso egoera barregarriak sortu zituzten. Gure bizimoduari barre egin gura badiozu, Jai Zalen daukazu horretarako aukera!

kultur errota
biraka dabilen herria sorkuntzan ari den herria

MATXIN

NI IZANGO NAIZ,
THE NUMBER 1

urriak 24 barikue
23:00
Jai Zalen

Antolatzailea: runea
Loguntzailea: AED ELKARTEA

Matxin antzerkilari iruindarrak eskarmentu handia du halako saioak egiten.



Uarkape 2, behea. ARRASATE. Tel.: 943 77 20 87
irudisport@telefonica.net

Ondo pasatu eta gainera ikasi egin nahi baduzu, badakizu zer egin:

**FUNKA ETA
HIP-HOPA
DANTZATU!!!**


PROBA EZAZU, DOAN, AZARORAN ARTE.

Hazi egin gara, orain ekintza gehiago, ordu gehiago...

- BODY-PUMP
- BODY-COMBAT
- BODY-BALANCE
- AEROBIKA - STEP
- SPINNING-A
- TONIFIKAZIOA
- FUNKA
- HIP-HOPA

ELKARRIZKETA

EKON/MUSIKA TALDEA

“Taldekide asko gara, eta geroago eta zailagoa da denok koordinatzea”

Ekon taldeak, hasieratik, asko landu du irudia. Argazkian, taldea sortu zuten lagunak.

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Ekon taldeak azkenengo kontzertua egingo du. Hitzordua gaztetxean izango da eta oso emanaldi berezia antolatu dute. Juan *Sangre* abeslariarekin taldearen ibilbidearen gainean berba egin dugu.

Noiz hartu zenuten taldea bertan behera uzteko erabakia?

Orain dela hilabete batzuk hartu genuen erabakia. Taldeko batzuek atsedean hartu gura zuten eta beste batzuek gauza berriak probatu gura zituzten. Taldean lagun asko gara, nork bere egin-beharrak ditu, eta geroago eta zailagoa da bederatzi lagun batera koordinatzea. Aurretik erabakia hartuta genuen arren, ez genuen berehala aditzera eman gura. Erabakia behin betikoa da.

Eta zein proiektu dituzue taldekideek?

Iñigo, Fatty eta Yago, aspal-ditik, rock-and-rolla egiteko elkar-tzen dira, batez ere, ondo pasatzeko. Niri dagokidanez, Etsaiak taldeko Keu eta Mikelekin eta Baldin Bada eta Su Ta Gar taldeetan ibilitako Ibanekin taldea sortu dugu. Estebanek Denial taldea dauka eta Heloy Fly Shit taldeko bateria jotzailea da.

Zeintzuk izan dira taldeak bizi izan dituen une zailenak?

Bizi izan ditugun zailtasun handienak, gogorrenak, partaide aldaketak izan dira. Musika-riak aurkitzea zaila da, eta taldearen lana eten egiten da. Hala ere, arazo horiek taldea indartu egiten dute.

Zer da taldeak eman dizuen onena?

Taldeak eman digun onena da ezagutu ditugun lagun guztiak.

Horrez gain, diskoa grabatu bezain laster, etxean entzuteko unea izugarria da. Plaza batera jotzera joan eta beteta ikusteak zirrara handia eragiten du. Ikusleak kantuak abesten ikustea, animuak emateko bidaltzen diziguten e-mailak... Oraindik, bederatzi urte pasatu ondoren, e-mail bat jasotzen dugun bakoitzean hunkitu egiten naiz.

Eta taldeak eman dizuen txarrena?

Musikaren inguruan dagoen negozio guztia. Guri managerrarekin lan egiteak on egin digu. Urte askoan asko borrokatu behar izan dugu baldintza minimoak ziurtatzeko: bederatzi lagun gara, piroteknia eta bestelakoak erabili ditugu... Gure ustez, hori borrokatzea ez da musikariaren lana.

Hala ere, negozioa esatean zera esan gura dut: ganorazko estudio baten ekoizpen on bat egin ahal izateko, disko kopuru jakin bat saldu beharra dago; furgoneta ordaindu ahal izateko,

urtean kontzertu kopuru handia egin beharra; eta disko bat grabatzeko unean, entzuleek gus-tuko izan behar dutela kontuan hartzea. Horrek guztiak asko baldintzatzen du musika egiteko unean.

Egia da inor ez dela profeta bere herrian? Zelan bizi izan duzue hori?

Nik uste dut euren herrian profetak diren salbuespen gutxi egongo direla. Gu, behintzat, ez gara. Hala ere, hasi ginenean, herrian *boom* antzeko bat izan genuen. Ez dut uste musikarekin harreman handirik izan zuenik; moda kontua izan zela uste dut. Taldea jotzen hasi aurretik, elastiko mordoak saldu genituen. Gero, bat-batean, zelanbait ahaztu egin gintuzten. Noizbait pentsatu dugu ea zerbait txarto egin ote dugun, baina kontu horiei ez zaie garrantzi handirik eman behar.

Hasi zinetenetik asko aldatu da Euskal Herriko musika eszena?

Diskoetxeei dagokienez, behintzat, bai. Diskoetxe eta disko denda askoz gutxiago daude. Merkatuak izan duen krisiaren ondorioz, geroago eta zailagoa da diskoetxeak taldeak kontratatzea. Egun, talde gehienek euren kasa grabatu behar dute eta diskoetxeak lana editatu besterik ez du egiten. Lehen, aukera hobekak zeuden.

Orokorrean, musika eszena zertxobait aldatu da. Beste musika estilo batzuk egiten dituzten taldeak sortu dira. Poliki-poliki musika eskaintza zabaltzen ari da. Bestalde, gaur egungo kontzertu handi askok aurreko urteotako kartel bera edukitzen segitzen dute (SA, Su Ta Gar, La Polla, RIP...). Izan ere, iraganeko taldeak ordezkaturako dituenik ez da jaioraindik.

“Hasieran herrian ‘boom’ antzeko bat izan genuen. Moda kontua izan zela uste dugu”

“Taldekide asko gara, eta geroago eta zailagoa da denok koordinatzea”

AEDk abian jarri ditu XVII. Arrasate Lehiaketak

I.B.

AEDk Arrasate Lehiaketen hamazazpigarren edizioa antolatu du. Besteak beste, ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia eta euskalki-grabazio alorrak antolatu dituzte. Hasi lanak prestatzen!

AEDko Kultura Sailak XVII. Arrasate Lehiaketak jarri ditu abian. Lehiaketa horietan, Leintz eta Ugarran ibarretan bizi, lan egin edo ikasten duten 17 urtetik beherako edonork har dezake parte. Adin horretatik gorako mailan, berriz, Debagoien osora zabaltzen da parte-hartzea. Interesatuak ezin izango dira bi arlo baino gehiagotara aurkeztu. Lanak AEDra bidali beharko dira 2004ko otsailaren 6a baino lehen: Pablo Uranga 4, behea, Arrasate. Ohikoa den moduan, lan guztiak lelo batekin sinatu beharko dira.

BALDINTZAK, ADINAREN ARABERA

Ipuinaren alorrean gaia librea izango da, eta lanaren luzera eta sariak jaiotze dataren arabera izango dira. Adin tarte bakoitzean bi sari banatuko dituzte. Sari handiena 150 eurokoa izango da.

Poesia alorrean gaia librea izango da, baita konposaketa eta

errimak ere. Modu berean, lanen luzera eta sariak jaiotze dataren arabera emango dituzte.

Bertso-paperekin ere gai librea izango dute, eta lanen luzera eta sariak jaiotze dataren arabera emango dituzte. Bertso-paperekin bidaltzerakoan, alboan bertsoak zein doinutarako idatzi diren adierazi beharko da.

KOMIKIA ETA EUSKALKI-GRABAZIOA

Idazteko lanez gain, beste era batekoak ere badaude; izan ere, komiki eta euskalki-grabazio alorrak ere antolatu dituzte.

Komikia egin gura dutenek gai librea izango dute; DIN A-4 formatuan lan egin beharko dute. Lanak lau orrialde gutxienez eta sei gehienez izan beharko ditu. Horien sariak ere jaiotze dataren arabera emango dituzte.

Azkenik, euskalki-grabazioa ere antolatu dute. Leintz eta Ugarran ibarretako euskara jasotzen duen magnetofoni-grabazioa hartu beharko dute. Arrasateri lotutakoa izan beharko du (historia, ingurunea, pertsonak, ekonomia...). Bi sail bereiztuko dituzte: elkarrizketak eta kontakizunak. Gutxienez 10 minutu iraun beharko du eta gehienez, 15. Euskararen jatorria eta grabazio kalitatea baloratuko dituzte.

**Goikobaluk kontzertua egin zuen Azpeitian**

Joan den domekan Goikobalu abesbatzak kontzertua egin zuen Azpeitiko Jesusen Bihotzaren Mirabeen elizan. Abesbatzako 28 lagunek hartu zuten parte –beste partaide batzuk *Mahoma*-ren omenaldira eta Nafarroa Oinezera joan ziren– eta entzule asko izan zituzten. Besteak beste, polifoniak, euskalki musika eta ingelesezko abestiren bat edo beste abestu zituzten. *Euskal Herriko* kantuararekin bukatu zuten ikuskizuna. Gero, ederto bazkaldu zuten. Horrez gain, Goikobaluk salatu gura du 14 urteko ibilbidean ez dutela egoitza propiorik lortu. I.B.

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEENDAKO IKASTAROAK

GAZTETXEAK ANTOLATUTAKO MENDI IRTEERA

AGAKOK (Arrasateko gazte batzarrak) mendi irteera antolatu du. Bihar, zapatua, egin dute hitzordua. 09:00etan Arbolapetan elkartuko dira eta Santakurtz kobara joko dute -Anbotoste ingurua-. Hamarretakoa egiteko Besaiden geldituko dira, eta AGAKOren kontu izango da. Bazkaria, berriz, norberak eraman behar du. Eguraldi txarra eginez gero, Galarrako kobazulora joango dira.

GAZTETXEKO WEBGUNEAREN HELBIDEA

Aurreko astean iragarri genuen gaztetxeako webgunearen helbidea honako hau zela: arrasatekogaztetxea.com. Bada, hainbat arazo tekniko izan dituzte, eta aditzera eman digute behin-behineko helbidea honako hau dela: arrasatekogaztetxea.tk.

TXATXIARTISTAK ANTZERKI TALDEA OSATU GURA DUTE

Txatxilipurdi 9 eta 10 urte arteko gaztetxoek bila dabil Txatxiartistak antzerki taldea osatzeko. Izena eman Txatxilipurdin, lehenbailehen.

'LARUNBLAI' EGINGO DUTE USAETXE PLAZAN

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai* ekimena antolatu du. 11:00etatik 13:30era artean, bonboigintza tailerra egingo dute Usaetxe plazan.

TXIKILANDIA PARKERAKO BEGIRALE DEIALDIA

Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu dute. Txikilandia Musakolako kiroldegian antolatuko dute 2004ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo behar du.

Ile apainketa, automakilaje eta henna-tatuaje eskolak

IKER BARANDIARAN

Urriaren antolatutako ikastaroek izan duten harrera ikusita, Txatxilipurdik beste ikastaro bat antolatu du azarorako. Hiru zapatuan, henna-tatuajeak, ile apainketa eta automakilajea egiten ikasiko dute.

Txatxilipurdik gazteendako hainbat ikastaro antolatu ditu. Hip-hop ikastaroa bihar bukatuko da, eta harrera ezin hobea izan du. Musakolako kiroldegian egin dituzte eskolak. Grafiti ikastaroa azaroan hasiko da eta dagoeneko osatuta dago taldea. Hiba Garai izango da irakaslea.


Judo ikastaroa eman ahal izateko, berriz, material faltan daude. Beraz, behar dutena

Txatxilipurdik 12 eta 17 urte arteko gazteei ikastaro interesgarriak eskaini dizkie

lortu bezain laster hasiko dituzte eskolak.

AUSKALO ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK

Azaroaren 8an, 15ean eta 22an beste ikastaro bat antolatu dute. Auskalo antzerki taldeko partaideek honako hauek erakutsiko dituzte: ile apainketa, automakilajea



ARRASATE PRESS

Lagun askok dute gustuko henna-tatuajeak egitea.

eta henna-tatuajeak, hain zuzen ere. Erguingo gazte txokoan egin dituzte, eta 12 eta 17 urte arte-

ko gazteek har dezakete parte. Izena Txatxilipurdin eman behar da. Matrikula hiru eurokoa da.

LOTSABARIK/ Aitzol Auzmendi

"Futbolarekin zeharo aspertu nintzen"

I.B.

Aitzol Auzmendik ez du filmak ikusteko ohiturarik, eta irakurtzeko gurago ditu biografiak. Bere zaletasun handiena mendira joatea da. Txikitan futbol jokalaria izan gura zuen, baina gaur egun ez.

• Txikitan zer izan gura zenuen?

Txikitan Realeko jokalaria izan gura nuen. Jokalaria izateko ilusioa nuen, sekula ondo jokatu ez dudana arren. Baina futbolarekin aspertu egin nintzen, eta asmoz aldatu dut. Lana aurkitzea da garrantzitsua. Lan ona lortzen badut, azpian daudenak lagun-

tzen saiatuko naiz.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Arrasaten edo hemendik geratu bizi izango naizela uste dut. Seguruenik potolo egongo naiz eta ile gutxiago edukiko dut. Bi ume eduki gurako nuke.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

Orain daukadana, 20 urte. Oraindik gaztea naiz eta gustura nago. Gainera, gerokorik oraindik ez dut bizi izan.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, ikasketei eta lagunei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Batzuen xenofobiak eta beste batzuen inpotentziak. Ea Euskal Herriko salbuespen egoera behin-goz bukatzen den.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Elkarrizketa honek, esaterako. Baita ezezagunekin berba egiteak ere. Are gehiago, neskak badira.

• Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?


Beti lagunei laguntzeko geratu nago, baina bizkor haserretzen naiz.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Hankak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiei eta begiradari.



ADINA: 20 urte • IKASKETAK: Informatika Ingeniaritza ikasten dabil • ZALETASUNAK: Mendira joatea
LIBURU BAT: 'Lagun izotzia' • FILM BAT: Film gutxi ikusten ditu • MUSIKA TALDEA: AC-DC • KIROL TALDEA: Edozein talde euskaldun

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Aretz
Taberna
Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

BEHEKOKONTZESIONARIOTIK

Paulino Rivas

CHAPIME KONTZESIONARIOA

XABIER URZELAI

Paulinok 32 urte daroie Mondraguen lanien. Mekaniko lanetan hasi zan, eta 1987xen Chapime taillerra ipiñi euen, Citroenekin batera. Urriotan automobilien merkaturae asko aldatu dala esaten dau Paulinok: "Oin automobillek askoz be lehenau kanbixetan dittugu, baiñe kilometro gehixago egindde".

Txikittan ze gure zeuen izen?

Hegazkin mekaniko. Horretarako, baiñe, ejerzituen emun biher neuen izena, eta pentsauko dozun moduen...

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bai, baiñe lan hori egitteko honezkero zahartute nau.

Drogak legalizauko zeuke?

Batzuk behintzet bai. Legez kanpo egotiek ez dauko zentzurik; informau egin biher da.

Eta prostituziñue?

Hori be, legalizaute hobeto.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Emuten dau gauza positibuek daukola. Gehixau esateko, baiñe, ondo ezagutu biher da, eta nik gutxi dakit horren gainien.

Nora juengo zitzake gustora?

Australiara edo Kanadara.

Bizio bat?

Biziu be baiñe gehixau manixie: gauza bakotxa bere lekuen euki biher dot.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Danetik egitten dot etxien, eta gustora gainera.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Neuretako be ez dot gure hori; hortan, neuk be ez neuke horrelakorik egingo.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen errex aparkau leikela.

Ze automobil saltzen dozue gehixen?

Citroen Xsara.

Eta zeuk zein erosiko zeuke?

Citroen C5.



"Horreik deskontu haundixok Citroenek egitten dittu, eta gero guk deskontuari aurre egin biher..."

Zergaittik?

Oso automobil segurue dalako. Estabilidade haundixe dauko eta biaje luzie egindde be ez da horrenbeste kantsetan. Neure ustez, automobil konpletuena da.

Citroenek egitten dittuen deskontuek egindde, emuten dau automobilak erregalau egitten ditzuzela.

Bai, eta larri ibiltten gara gainera. Geuk automobillek deskontu barik erosten dittugu, eta gero Citroenek jarten dittuen deskontuei aurre egin biher...

Automobille saltzerakuen zein da paso inportantiena?

Lelengo eta behin, inportantie da klientiek ze biher dauen jaki-

"Neuk Citroen C5 automobille elegiduko neuke; neure ustez, oso konpletue da"

ttie; horrekin jakitten da ze modelo erakutsi biher jakon. Gero, automobil probetie erabakigarrixe izeten da.

Citroen C2 Urban Sport Car modelue eskusibue egin dozue. Hori, baiñe, asko salduko da?

Gaztiendako automobille da, eta egixe esatiarren, oso ondo dau. Barruko aldie asko zaindu daue eta kanbixu barrizaille dauko, 1- Formulako automobilien modukue. Lehengo gama altuko Citroen Saxo automobilan prezio antzekue dauko; ondo salduko da.

Bukaketako, badauketzue nobedaderik?

Nobedadie? Bost urtien 25 modelo barri atara biher dittugula.


NIREBIDAIAHURA/ Iban Toledo

Senegal / 2003ko abuztuan

Iban Senegalen egon da aurtan, bi lankiderekin batera. Oporretan nora joan begiratzen hasi zirenean, Senegalera joateko eskaintza ona zegoen, eta ez zuten birritan pentsatu. Bidaia merkea zen eta, gainera, hiru lagunek zuten Afrika ezagutzeko gogo: "Senegal beste modu baten imajinatzen nuen, baina oso gustura ibili gara". Afrikara ez ziren hiru lagunak batera joan. Iban Afrikara joan aurretik Alpeetan izan zen, eta beste bi lagunak baino astebete geroago iritsi zen Senegalera. Eta aste hartan Ibanen bi lankideek Senegalgo iparraldea bisitatu zuten.

Iban iritsi zenean, hegoalderako bidea hartu zuten. "Senegalen gauza askok harritu gaituzte. Oso herrialde ikusgarria da, kontrastez betetako. Leku batzuek paradisua dirudite, baina beste leku batzuetan zaborra baino ez zegoen". Turismoaren gainean galdetzerakoan, apurka-apurka geroago eta turismo handiagoa dagoela esan digu Ibanek: "Ez da aberatsek egiten duten turismoa, turismo motxileroa da. Horrelako leku gehientsuenetan moduan, gune bat dago turistendako bereziki prestatuta dagoena".

Ibanen ustez, turismo sexual handia dago Senegalen: "Tamalez, frantziar asko ikusi ditugu emakumeekin sexua lortzeko tratuan. Izan ere, hango emakumeak oso politak dira; Naomi Campbell txiki geratzen da. Horrez gain, gizon bila zihoazen hainbat emakume ere ezagutu ditugu; hemengoak, gainera. Emakumeek, baina, gizonak gidari moduan kontratatzen zituzten, eta hila bete egiten zuten eurekin". Ibanen esanetan, akaso hori izan da bidaiako gauza txarrena: turista asko emakume gazte-gazteekin sexua lortzeko tratuan zelan egiten zuten ikustea, alegia. Datorren astean ere Senegalen izango gara.



"Senegal kontraste handiko lurraldea dela esango nuke"

"Tamalez, frantziar asko ikusi genituen sexua lortzeko tratuan"

XABIER URZELAI



Ibanek, Senegalen, argazki kamera alboan izan zuen beti.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

GORKA ileapaindegia peluqueria

Orduetgia:
Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

PUB HAIZEA

arrasate

ZAHARRAREN ETXETIK



Erretiratu mordoak joan ziren azoka berezi hori ikustera.

NAGUSI

Nagusi 2003 azoka arrakastatsua egin zuten Bilboko Erakustazokan

IKER BARANDIARAN

Euskal Autonomia Erki-
degoko hainbat erakun-
dek Nagusi 2003 azoka
erraldoia antolatu dute.
Joan den astean, urriaren 16tik
19ra, Nagusi 2003 azokaren zaz-
pigarren edizioa egin zuten Bil-
boko Erakustazokan. Hirugarren
adinekoentzako azoka benetan
ikusgarria izan zen. Guztira 72
erakusketari ipini zituzten, eta
denetik egon zen.

Nagusi 2003 azokaren antola-
tzaleek honako hau diote: "Gero-
ago eta lagun gehiago etortzen
dira saltzera, erakustera, ikuste-
ra eta erostera. Aurten 80.000 bat
lagun pasatu dira azokatik. Kon-
tuan hartu behar da geroago eta
urte gehiago bizi garela eta hiru-
garren adineko multzoa handituz
doala. Eskaintza bera ere lagun
kopuru eta aniztasun horretara
handitu eta egokitu beharra
dago".

Ekimen pribatuez gain, era-
kunde asko ere izan ziren pre-
sente azoka horretan: besteak
beste, Eusko Jaurlaritzak eta Biz-

kaiko Foru Aldundia. Bi era-
kunde horiek hirugarren adina-
ren esparruan dituzten baliabi-
deak ipini zituzten erakusgai.
Azokak izan dituen oinarrizko
gaiak honako hauek dira: osasu-
na, aisialdia eta zerbitzuak.

Besteak beste, honako zerbi-
tzuak aurkitu genituen Bilboko

azokan: laguntza teknikoak, ter-
malismoa, etxean laguntza jaso-
tzeko zerbitzua, bidaiak eskaini-
tza, aholkularitza, eguneko egoi-
tzak, gizarte-laneko boluntarioak,
ostalaritza, aseguruak, garraioa,
brikolajea, eta beste asko.

BERBALDI ETA TAILER UGARI

Erakusgai eta salgai ipini zituz-
ten gauzez gain, erakusketariak
hainbat berbaldi eta tailer anto-
latu zituzten. Hainbat gai eta arlo
izan zituzten berbagai, eta hain-
bat aholku eman zituzten. Hona-
ko hauek izan zituzten hizpide,
besteak beste: *La comunicación y
la relación afectiva en la pareja;*
*La mejor receta: ser optimista y
activo;* *Las relaciones con hijos y
nietos;* *La viudedad de las muje-
res;* *El rol de las personas mayo-
res;* *Capital social y cultural de las
personas mayores;* eta *El papel
activo de las personas mayores en
la sociedad.*

Bizkaiko erretiratuen elkar-
te askori esker antolatu zituzten
hainbeste hitzaldi eta tailer. Zer
esanik ez: erretiratuek oso ondo
erantzun zuten.

Ekimen eta eskaintza ugari

Zazpigarren aldia da
Nagusi izeneko azoka
antolatzen dutena.

Horretarako, erakunde
eta ekimen pribatu ugari
ibili dira lankidetzan.
Eta emaitza hor dago: lau
egunean 80.000 lagun
baino gehiago pasatu
dira azokatik.

Ondo legoke han
erakutsitakoa eta, batez
ere, han antolatutako
berbaldi batzuk herrira
ekartzea.

LABUR

Martxoaren 24an, Toki Argiko erretiratuek Italiara zazpi eguneko txangoa egingo dute

Toki Argi elkarteko erretiratuek Italiara bidaiak antolatu dute. Mar-
txoaren 24an irtengo dira Arrasateetik eta hilaren 31n bueltatuko
dira herrira. Besteak beste, Niza (Frantzia), Pisa, Florentzia, Sie-
na, Erroma, Padua, Venezia, Milan eta Erroma bisitatuko dituz-
te. Interesatuak 570 euro ordaindu beharko dituzte.

Interesatuok jo lehenbailehen Toki Argiko bulegora.

Abaroa elkarteak dantza ikastaroan parte hartzeko izenematea zabaldu dute

Atsedendaldi baten ondoren, Abaroa elkarteak aretoko dantzen ikas-
taroa antolatu du berriro. Azaroaren 5ean hasiko dituzte eskolak;
10:30ean egingo dituzte, Abaroa elkartearen bertan.

Aurretik ikastaroan parte hartu eta errepikatu gura dutenek
edo lehenengo aldiz joan gura dutenek Abaroa elkarteko bulego-
ra jo beharko dute, lehenbailehen, izena ematera.



Obdulia Ansuategi sukaldaria hil egin da

Joan den zapatuan, Obdulia Ansuategi erretiratu hil egin zen.
Arrasateko sukaldari ospetsuak 91 urte zituen eta Iturbide egoi-
tzan bizi zen. Aspaldian Obduliak sukaldeak utzita zituen, bai-
na oso sukaldari ospetsua zen. Arrasatek eman duen sukaldari
ospetsuena dela esan dezakegu, zalantza barik. Are gehia-
go, batzuen esanetan, Euskal Herriko onenetakoa zen.

Besteak beste, 20 urte zituenean, Altolako bainuetxean
sukaldeko arduraduna izan zen. Hark prestatutako legatz-medai-
loiak eta *Udalaitz* izeneko postrea ezinbestekoak dira. //B.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711762

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ARRASATE
Ane Ormaetxea
Urriaren 21ean, 11 urte.
Zorionak! Gurasoak, Jon
eta lagunak.



ARRASATE
Txipi Ormaetxea
Urriaren 28an, urtebete-
tzea. Zorionak! Familiako-
en partetik.



ARRASATE
Janire Ormaetxea
Urriaren 29an, urtebete-
tzea. Zorionak! Familiako-
en partetik.



ARRASATE
Maria Lopez
Urriaren 24an, 3 urte. Zorio-
nak! Gurasoen partetik.



ARRASATE
Nagore Altzelai
Urriaren 26an, 26 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
lagunak.



ARRASATE
Julen Paunero
Urriaren 28an, 8 urte. Zorio-
nak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Irati Lopez
Urriaren 30ean, 7 urte.
Zorionak! Ane, gurasoak
eta amama.



ARRASATE
Leisly Cornejo
Urriaren 16an, 26 urte.
Zorionak! Muxu handi
bat. Karlos eta etxeakoak.



ARRASATE
Mireia Isazelaia
Urriaren 23an, 7 urte. Zorio-
nak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Jon Otxoa
Urriaren 31n, 9 urte. Zorio-
nak! Etxekoen partetik.




ARRASATE
Iulen Abarrategi
Urriaren 22an, 2 urte. Zorio-
nak! Ainhoaren eta etxe-
koen partetik.



ARRASATE
Eneritz Salceda
Urriaren 28an, 8 urte. Zorio-
nak! Etxekoen partetik.



ESKORIATZA
Nerea Zubiete
Urriaren 22an, urtebete-
tzea. Zorionak! Goienako
langileak.




SORALUZE
Mikel Alberdi
Urriaren 21ean, urtebete-
tzea. Zorionak! Goienako
langileak.



ARRASATE
Amaia Cadiñanos
Urriaren 14an, 8 urte. Zorio-
nak! Etxekoen partetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Noiz zabaldu eta bedeinkatu zuten Musakolako San Isidro eliza?
Arrastoa: 1944an hasi zituzten eliza egiteko lanak.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Aros Ultra baxera garbitzailea
750 ml

1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MILA BEITIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mila!
Galderen erantzun zuzena:
Santa Teresa eliza.

ARRASATEKO HISTORIA

San Andresko Navas de Tolosa kalearen gainekoa

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

San Andres auzoan dago Navas de Tolosa kalea, Andaluzia eta Aramaio kaleetako etxe-multzoen artean, hain justu ere.

Hiru kale horien izenak Gaztelako Alfontso VIII.aren erreinuarekin lotutakoak dira. Hain justu ere, errege hark Navas de Tolosa izeneko bataila irabazi zuen (Jaenen), Aragoiko Pedro II. arekin eta Nafarroako Santxo VII. arekin batera. Moamed-ben-Yusub-en kontra borrokatu ziren hirurak; Aita Santuak borroka hura Gurutzada zela esan zuen.

Hain zuzen ere, Arrasateko armarran agertzen diren kateek Errekonkistarako ezinbestekoa izan zen borroka hartan parte hartu zuten gure arbasoak gogorarazten dituzte. Horren harira, esan beharra dago orain dela 10 bat urte armarrari hori berri gura izan zutela, ukitu modernoa eta sinplea izan zezan. Horren ondorioz, besteak beste, kateak kendu egin zituzten.

Alfontso VIII.a erregearekin jarraituz, kontatu beharra dago 1200ean Arrasaten egon zela

Gaztelako Alfontso VIII.a erregea Arrasaten izan zen 1200ean Foruen Zina egiten

Arrasaten sinatu zuten Gipuzkoa Gaztelari atxikitzeko hitzarmena

Gipuzkoako Foruen Zina egiten. Are gehiago, orain dela bi mendeko erdialdera arte, gertaera hura gogora ekartzen zuten harrizko monolitoa egon zen Foruen plazan.

Lekukotasun hark eta bestelako gertaera historikoek erakusten digute 1200ean Arrasaten sinatu zutela Gipuzkoa Nafarroatik banandu eta Gaztelari atxikitzeko hitzarme-



GORKA MORRAS

Arrasateko jatorrizko armarran kateak ageri dira, Navas de Tolosako batailaren adierazgarri.

na. Hori guztiori, foruak eta ohitura guztiak errespetatuko zituztela zin eginda eta erabateko askatasunarekin. Harrezkero, Gaztelako erregeak Euskal Herrira etortzen ziren bakoitze-

an juramentu hura berretsi egiten zuten.

Horren gainean esan beharra dago Diputazioko eskaileretako beirateak 45 metro koadro dituela; eta han,

koloretako beiren bitartez Etxenaren margolan bat erakusten dela. Margolanean Gaztelako Alfontso VIII.a ikusten da Gipuzkoako Foruen Zina egiten, Arrasaten.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urriaren 24a / 82. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorla Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Saltoki ugari etorriko dira herrira, aurtengo Erretiratuaren Eguneko azokara

UBANE MADERA

Gaur, barikua, hasi eta bihar arratsaldera arte herriko erretiratuak jai-giroan murgilduko dira. Urteroko bazkariarekin batera, besteak beste, goizean artisauen eta baserriarren postuak egongo dira kalean, euren produktuak erakusten eta saltzen.

Gaur hasiko dira aurtengo Erretiratuaren Eguneko ospakizunak: hala, 21:00etan, Camerata Gasteiz orkestrak kontzertua eskainiko du Sabin Salaberria aramaioren zuzendaritzapean.

Eta bihar segituko du jaiak, goizean hasita. Hala, 10:30ean, herriko txistulariek kalejira egingo dute, diana moduan; 12:00etan, urtean hil diren erretiratuaren aldeko meza esango dute San Martin parrokiaren ostean, 13:00etan, euskal dantzen saioa izango da; eta 14:30ean, bazkaria, kiroldegian; horren ostean erretiratuak oinak astintzeko aukera izango dute, dantzaldian.

TRIKITIXA ETA SALDA

Horrez guztiaz gain, Aramaioko Trikitixa Eskolakoak kalean ibi-



Baserriko produktuak, jantziak, gozoak, erremintak... Denetarik egongo da Erretiratuaren Eguneko azokan.

liko dira, euren doinu alaiak jotzen; eta Ibarrako elkartean erretiratu guztiendako salda eta ogitarteko txiki beroak banatuko dituzte.

Horrez gainera, Erretiratuaren Egunean ohikoa denez, baserriarren eta artisauen azoka izango da, 10:00etan hasi eta 14:00ak arte. Gainera, saltokiz beteta

dator aurtengo azoka; 20 saltzaille baino gehiago etorriko dira. Batetik, baserriarrak, aramaiarrak: Mendixolakoek egindako lanak, Aramaioko eztiak (Aldeko

Saltokiak kalean egongo dira, baina aurtengo asko direnez, bestelako lekuetan ere egongo dira

eta Gardoki), Aramaioko gaztak (Unda eta Kerixara) eta Itur Zurik egindako lanak egongo dira.

EUSKAL HERRIKO ARTISAUAK

Bestetik, Euskal Herri osoko artisauak etorriko dira, makina bat langintzaren produktuekin: egurrez egindakoak (koilarak, bastoiak...); zilarrez egindako bitxiak, aloe-verako produktuak, beira, serigrafia, gozogintza... Eta tartean, Suoker izeneko taldeak errementaritzarekin lotutako postu berezia ipiniko du; 600 kilo material ekarriko dute, baita errementariak ere, burdina lantzen erakusteko.

Betiko moduan, postuok kalean ipiniko dituzte; baina aurtengo asko direnez, betiko lekuez gainera beste leku batzuetan ere egon beharko dute.


Datorren astean, tamaina handiko zaborrak batzera

Hileko azken barikua izanda, datorren urriaren 31n tamaina handiko zaborrak batuko dituzte Aramaioren. Tamaina handiko zaborrak dira ohiko zabor-erakundeetara botatzen ez diren horiek; eta izenak dioten moduan, ohikoa baino handiagoak direnak: jarlekuak, mahaiak, armarirak... Aramaioren, Gorbea Ingurumen Partzuergoak arduratzen da zabor horiek batzeaz.

ZERBITZUA HOBETZEKO

Horren harira, esan beharra dago aldaketak egin dituztela, zerbitzu hori hobetzeko asmoarekin.

Horren arabera, komeni da mota horretako zaborrak atera aurretik bilketa arduradunarekin harremanetan jartzea (Carlos, 620 21 65 08); modu horretan, biltzaileek badakite zein auzotara joan behar duten zaborra batzera; izan ere, ez dute astirik hileroko Aramaioko auzo guztiara joateko, eta abisatu ezean, kamioia ez da pasatuko. Lana errazteko, Ibarrakoek gauza bera egitea komeni da. Bestalde, kamioiaren zain egon behar du, norberak bota ahal ditu zaborrok. Horretarako Arrasatera joan beharra dago, Garagarzako zabortegira.



Tamaina handiko zaborrak batzeko komeni da aldeztu aurretik abisatzea.

LABUR

Abenduan ADSL izeneko sistema eskainiko dute

Telefonikak abendurako ipiniko du ADSL izeneko sistema. Sistema hori ipintzeko behar den ia azpiegitura osoa (zuntz optikoa) ipinita dute dagoeneko; telefonogune bat eta beste zenbait aparatua ipintzea besterik ez zaie falta. Eta behin hori eginda erabili ahal izango dute ADSL sistema. Hori bai, hasierako eskaintza 20-30 bat erabiltzailerendakoa izango da, dagoen eskaera asetzeko horrekin nahikoa da-eta.

ERRETRATUZAHARRA

Kooperatibetan parte-hartzea bultzatzen

Gaur egungo kooperatiba modua lortzeko, Arrasateko kooperatiben mugimenduak apurka-apurka eman zituen eman beharreko urratsak. Beste arlo askoren artean, langileen parte hartzea lantzen ahalegindu ziren.

Kooperatibetan langileen parte-hartzea Kontseilu Errektore eta Sozialeko ordezkariak aukeratzera mugatzen zen eta orduko zuzendariak arduratzen hasi ziren. Hala, parte-hartzea beste eremu batzuetara zabaltzeko asmoz, besteak beste, Norvegiako Lanean Demokraziaren Aldeko Mugimendua taldeko lider Einar Thorsrud-engana jo zuten Ularco ordezkariek. Aditu haren ekarpena inspirazioa izan zela diote.

Ularcoz gain, 1972an, Coprecin eman ziren lan antolakuntza modu berriak abian jartzeko lehen urratsak. Kudeaketa batzordea izeneko talde eragilea sortu zuten ekimena bultzatzeko. Lortutako emaitza onak zirela-eta, Ulgorrera zabaldu zuten esperientzia eta ekoizpen lineak kendu eta lan-



mahaiak izeneko zelula txikiak sortu zituzten. Lan antolakuntza modu berri horiek langileen lan aniztasuna bermatzen zuten, polibalente bihurtu, eta horren ondorioz, lanak satisfazio handiagoa eta harremanetarako aukera handiagoa eskaintzen zuen. Oraingo asteko argazkia langileen

parte-hartzea bultzatzeko egindako ekimen baten irudia da. 1977an Arantzazun ikastaroa egin zuten Zuzendaritza Parte-hartzailearen gainean. Hain justu ere, ikastaroan parte hartu zuten kideak azaltzen dira, ezkerretik hasita: J. Ignacio Lasa, J. Luis Azpiri, Gregorio Orobengoa,

Fernando Senar, Antonio Carmona, Migel Sarasola, Joxe Zubizarreta eta Segundo Elordui.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea liburua
Urtea: 70eko hamarkada


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Epeleko saihezbidea, Arrasaten


Epeleko saihezbidea Bergarako lurretan egin zuten; zati handiena bai, behintzat. Saihezbide horretako lanak 1992an esleitu zituzten, eta 1994an amaitu ziren lanak. Argazkian agertzen den zuzengunea Arrasateko lurretan dago; zubitik harantzago dagoen Epeleko errepide zatia, berriz, Bergara da. Saihezbidera sartzeko lanak hasi dituzte berriro ere, Kataiden.



≈ 1994 1994an amaitu zituzten Epeleko lanak, baina saihezbide hori amaitu barik dago, Elorriorainoko tunela falta da-eta.



2003 Autobidea Arrasatera iritsita, Epelek protagonismo handiagoa izango du, Gipuzkoako hegoaldea eta Bizkaia lotuko ditu-eta.

 **Txitxinpe**

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak

beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ROSA MARI

Ileapaindegia

Zarugalde 54 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 99 56

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

ILK APAINDEGI MISTOA

ilaran 

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00 / Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

BITXORI
Ileapaindegia



Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

Lore



Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR GLARINS BIOTHERM VALMONT

*Edertasun Gidan
parte hartzeko,
deitu 943 71 23 91
telefonora*

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida

edertasun gida
edertasun gida
edertasun gida